

Ricardo Etxepare

• EHUKO UDAKO IKASTAROEN ZUZENDARIA •

■ Irundarra da eta 58 urte ditu ■ Donostiako Ingeniaritza Tekniko Eskolako zuzendari, mende laurden bat darama irakasle ■ Euskal Herriko Udako Ikastaroetako zuzendaritzan, 14 urte daramatza ■ Lan horrek poz handiak eman badizkio ere, «nekatuta» dagoela dio ■ Ilusioz ari da, hala ere, aurten berriro ikastaroon lema gidatzen ■ Asteartean da inaugurazio ofiziala.

«Ikastarook testuinguru jakin bat dute eta horrek ukitu berezia ematen die»

■ 17 ikasketa ziklo, 63 ikastaro, 6.500 ikasle... Datu sorta horren guztia-
ren artean zer dute ikas-
tarook azpimarragarri?

Nabarmenena, nire ustez, Haur Hizkuntzaren Ikaskuntzarako VIII. Nazioarteko Biltzarra da. Uztailaren 12tik 19ra izango da, eta bertan mundu osoko adituek hartuko dute esku. Gai hori oso garrantzitsua da edozein tokitan, baina gurea bezalako herri elebidun batean are garrantzitsuagoa. Horretaz gain, beste hainbat ikastaro ere oso nabarmenak dira. Esaterako, ikastaro garrantzitsu batzuk egin dira dagokien: adibidez, gatazken konponbideari buruzko biltzarra edota gizarte mugimenduen Euskal Herriko baketze bidean izan dezaketen eraginari buruzko ikastaroa nabarmentzeko modukoak izan dira, hausnarketarako aukera eman dute.

■ Ikastaro horiek zein izpiritu lotzen ditu?

Ikastaro askoren atzean, bizikidetzak sortzen dituen arazoak aztertze gogo dago. Psikologia, gizarte zientzia, zuzenbidea... Ziklo horiek horretan saiatzen dira. Hezkuntzaren inguruko gaiak lantzeko gogo berezi bat ere badago, hori baita pertsonen garapenerako faktorerik garrantzitsuenak. Halaber, etengabeko formazioa eskani nahi diete ikastarook mundu teknikoago batean murgildutako pertsonen.

■ Zerk ezberdintzen ditu ikastaro hauek antzeko beste batzuetatik?

Bakoitzak testuinguru bat du, eta ikastarook ere testuinguru jakin bat dute eta horrek ukitu berezia ematen die. Ukitu hori ez da kulturala bakarrik, guk bizi ditugun



EDURNE KOCH

Euskara

«Egitaraua osatzeko batzordeak arreta berezia jartzen die euskarazko ikastaroen proposamenei»

arazo jakin batzuen eragina ere hor dago.

■ Inoiz baino ikasle gehiago izango dira aurten, 6.500. Zein da horien profila?

Hiru profil nagusitako ikasleak dira. Bat, emakume gazteak osatzen dute —22 edo 24 urte ingurukoak—. Karrera amaitzearen dauden edota amaitu berri duten emakumeak dira, lan mundura jauzi egin nahi dutenak. Beste profila, berriz, profesionalak osatzen dute, batez ere irakasleek. Azkenik, hiruga-

rren multzoa, sailkatzen zaila da, oso zabala baita. Ikastarootara hainbat arrazoi ezberdinengatik bertaratu diren ikasleek osatzen dute.

■ Ikasle kopurua handitze-ko irrikarik ba al duzue?

Gure asmoa ez da hori. Nire ustez, kopuru horrekin gaina ukitu dugu.

■ Euskararen presentzia ikastarootan zenbatekoa da?

Nik uste dut azken urteotan presentzia hori egonkor samarra dela. Jasotzen ditugun proposamenen arabera-

koa da. Ikastarootako egitaraua osatzeko batzordeak arreta berezia jartzen die euskarazko ikastaroen proposamenei. Irakasleei eskainitako ikastaroetan, esaterako, euskarazkoek oso harrera ona izaten dute, baina publiko zabalago bati eskainitakoetan euskarazko eskaerak nabarmen egiten du behera. Azken urteotan lau-pabost ikastaro egiten ditugu euskaraz.

■ Eta eskaintza hori hazi egingo da?

Nik uste dut oraingoz eskaintza horri eutsiko diogula. Izan ere, gutxi gora-behera, gure ikasleen %50 EAEkoak dira, %15 edo atzerrikoak dira eta %35 estatu osotik etorriak, eta egitura horri eutsi egin nahi diogu. Euskarari dagokionez, gainera, hor dago Udako Euskal Unibertsitatea, ikasle eta irakasle euskaldun ugari elkartzen ditu, eta hori kontuan hartu beharreko erreferentzia da.

■ Miramar Jauregiak gain, egoitza berria duzue aurtengo Kursala. Zer erabilera emango diozue?

300 lagunetik gorako ikastaroak egiteko bertara joko dugu, horietarako txikia baita Miramar jauregia.

■ Hemezortzi urte daramatzazue lanean. Zein dira etorkizuneko erronka nagusiak?

Erronka bat ikasleen beharrei erantzutea da. Behar horiek identifikatu eta ikastarookin horiei erantzun nahi diegu. Beste erronka, ikasleen aniztasuna kontuan hartzea da. Izan ere, ikastarootan maiz oso ezagutza maila ezberdina duten ikasleek egiten dute topo eta zaila da guztien nahiak asetzea.

Arantxa Iraola
DONOSTIA

Juan Luis Beltran:
«Gabeziak daude adinekoen beharrak asetzeko gizarte egituretan»

AI / Donostia

AURTEN Adinekoen Nazioarteko Urtea izaki, atzo Udako Ikastaroetan adinekoen eskubideei buruzko jardunaldia izan zen, Eskubideak ez dira iraungitzen adinarekin: Adinekoen urtea. Horretan, besteak beste, Xabier Markiegi Arartekoak hartu zuen esku, bai eta adinekoen eskubideetan aditu diren hainbat unibertsitate irakasle ere. Horien artean Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle Juan Luis Beltran egon zen. «Adinekoen babesa ardura publikoa da, ez pribatua», adierazi zuen. Azaldu zuenez, ordea, ardura hori ez da bete-betean konpliztzen. «Gabeziak daude adinekoen beharrak asetzeko gizarte egituretan», esan zuen. «Lege aldetik hutsunerik ez dago, baina gabeziak daude», azaldu zuen.

Gazteen babesa adinekoei

Jardunaldi horretan Gaztela-Mantxako unibertsitateko irakasle Angel Carrascok ere esku hartu zuen. Hark, bere jardunetan, senide gazteek etxeko adinekoei babesa eta laguntza eskaintzeko duten betebeharrak hitz egin zuen. Azaldu zuenez, izaera zibileko betebeharra da hori, eta hori ez konpliztea ez da delitua, baina, hala ere, adinekoen batek, hala nahi izanez gero, auzi bidera jo dezake hurbileko senideek baztertuta dutela esateko. Arazo horien aurrean, hala ere, adinekoek epaitegietara inoiz gutxitan jotzen dutela esan zuen, normalean familiarteko istorio mingarrien itzala egoten baita horrela-ko egoeren atzean.

Atzo, halaber, beste hiru ikastaro aurkeztu ziren Miramar jauregian. Komunikazio berria hedabideetan ikastaroa datorren astean hasiko da, eta hedabideen kontsumo aldaketaren eraginak izango ditu hizpide. Linguistiko unibertsalak eta Zarata eta osasuna ikastaroak ere atzo aurkeztu zituzten.